eman eta zabal zazu
universidad del país vasco
euskal herriko unibertsitatea
Departamento de Economía Financiera II
Finantza Ekonomia II Saila

ESTRATEGIA-ZUZENDARITZA: ENPRESA HAZKUNDEA ETA GARAPENA

3. EAZG 2026ko maiatzaren 29a 1. eredua

IZEN-ABIZENAK:..... NAN:.....

Mondragon Assembly indartu egin da Indian ekoizpen filial berria sortuz

Mondragon Assembly kooperatibak, 40 urtetik gorako esperientziarekin, egoitza Aretxabaletan (Gipuzkoa) du. Espezialista da muntaketa prozesuak automatizatzeko askotariko ekipoen diseinuan, fabrikazioan eta instalazioan. Nazioarteko presentzia sendotzeko estrategiaren barruan, Mondragon Assemblyk 2026an Indian, Mombayn, duen filial komertziala filial produktiboa itxi eta New Delhin ekoizpen filiala sortzea erabaki zuen, erabateko inbertsio berriak eginez.

Erabaki hau Indiako merkatuaren potentzialean oinarritzen da, bereziki industria manufaktureroaren hazkundean eta energia berriztagarrien sektorearen garapenean. Orain arte, filialak funtzio komertzialak eta bezeroarentzako arreta zerbitzuak eskaintzen zituen; aurrerantzean, aurrekoaz gain tokiko ekoizpen gaitasunak garatuko ditu, bezeroei soluzio integralagoak eta azkarragoak eskaintzeko. Sektorean munduan geroz eta lehiakide gutxiago daude, produktu hauek garatzeko egin behar den I+G inbertsio handiengatik. Oso sektore espezializatua da.

Filial berritu honek eguzki-panelen ekoizpenerako goi mailako lerro automatikoak diseinatu, fabrikatu eta instalatuko ditu, "giltza eskuan" soluzioak eskainiz, Txinatarren produktu merkeagoen aurrean. Horri esker, Mondragon Assemblyk bere posizionamendua indartu nahi du Asiako merkatuan, tokiko presentzia sendotuz eta lehiakortasuna handituz.

Hala ere, estrategia honek erronka batzuk ere badakartza. Besteak beste, inbertsio ekonomiko handia behar du, tokiko hornitzaile-sare fidagarri bat garatzea eskatzen du, eta talentu teknikoa erakartzeko eta trebatzea funtsezkoa izango da. Gainera, trantsizioak kudeaketa konplexua eskatzen du, filial komertzial batetik ekoizpen egitura osatu batera igarotzea ez baita prozesu automatikoa.Ildo horretan, Mondragon Assembly mundu mailako enpresa bat da, herrialde ezberdinetan presentzia duena bere 5 ekoizpen plantei (Frantzia, Alemania, Brasil, Estatu Batuak eta Mexiko) eta nazioarteko bulego tekniko eta komertzialei esker, tartean India bera. Indiako filialaren eraldaketak beste urrats bat suposatzen du nazioartekotze estrategian, merkatu gakoetan presentzia sakontzeko bidean.

Aztertu Mondragon Assemblyk Indiako filiala sortzeko erabili duen estrategia. Labur azaldu kontzeptua eta kasuari aplikatu :

a) **Sartzeko eta irauteko estrategia (0,75 puntu).**

ESTRATEGIA-ZUZENDARITZA: ENPRESA HAZKUNDEA ETA GARAPENA

3. EAZG 2026ko maiatzaren 29a 1. eredua

b) Hazkunde estrategia (0,75 puntu).

c) Ebaluaketa ez jarraia dutenentzat galdera extrak.
Azaldu ikuspegi estrategia teorikoki zehatz-mehatz (1 puntu):